



PLAZARA!

Eibarko herriaren manifestua Merkatu Plazaren alde

Azaroan beteko dira hamahiru urte Errebaleko Merkatu Plaza behin-behineko plazara lekualdatu zutenetik. Aurretik Merkatu Plazak izandako gainbeherari erantsi zitzaion ez zela denentzat lekua egon plaza probisional haretan. 14 postu pasatu ziren Rialtora, Errebalera itzultzeko aginduaz. Gaur egun 4 baino ez daude, gainontzekoak hutsik geratu direlako.

Baserritarrek, adinduak gehienak, hamahiru urte igaro dituzte kale gorrian. Plazako postuen itxierak eta irteerak, baserritar batzuen erretiroak, pairatu duten utzikeriak eta kontsumo-ohituretan jasandako desplazamenduak kolpe gogorra izan da euren jardueran.

Orain, Merkatu Plazatik irten eta hamalau urteko probisionaltasun horretan, gure herriko agintariak ez ei diete Plaza berrian lekurik segurtatzen!! Aldi baterako joan ziren behin-behineko plazara, Errebalera bi urtean itzultzeko!!

Ez da gure asmoa urteotan izandako nahaspilaren inguruko iritzirik ematea. Besterik gabe, Eibarko herriak eta eibartarrok merezi dugun Merkatu Plaza aldarrikatu nahi dugu, urteotan bizirik mantendu dutenei bizkarra eman gabe.

Ondorioz, Eibarko herriak Merkatu Plaza duina merezi duelako, ondorengo mezua zabaldu nahi dugu lau haizetara eta eibartar guztiak gonbidatu berarekin bat egin dezaten:

- Elkartasuna adierazten diegu urteotan Merkatu Plaza bizirik mantendu dutenei. Lekua merezi dute plaza berrian.
- Eibartarrei dei egiten diegu aldarrikapen honekin bat egin dezaten eta bere kontsumo-ohituretan bertako produktoreen alde egin dezaten.
- Eibarko Udalari eskatzen diegu beharrezko prozedurak abiatu ditzala Merkatu Plaza bizirik mantentzeko, inor kanpoan laga barik.

Manifiesto del pueblo de Eibar a favor de la Plaza de Mercado

En noviembre se cumplirán trece años desde que la Plaza de Mercado de Errebal fuera trasladada a una ubicación provisional. A la ya decadencia vivida con anterioridad, se sumó la falta de espacio para todos los puestos, siendo 14 los que pasaron al Rialto, con la promesa de volver a Errebal. A día de hoy sólo quedan 4 puestos, habiendo quedado el resto vacíos.

Las baserritarras, la mayoría de ellas de avanzada edad, han pasado trece años en la calle. Cierres y salidas de puestos, jubilaciones, dejadez y el desplazamiento sufrido en hábitos de consumo han sido en su conjunto un duro golpe para su actividad.

Ahora, tras catorce años de provisionalidad, nuestros mandatarios y mandatarias parecen no garantizarles un sitio en el nuevo mercado... cuando fueron a una plaza provisional para volver a Errebal en dos años.

No pretendemos valorar lo acontecido todos estos años. Sólo queremos reivindicar la Plaza que Eibar y el conjunto de eibarreses y eibarresas nos merecemos, sin dar la espalda a quienes durante tantos años la han mantenido viva.

Por ello, porque Eibar se merece una Plaza de Mercado digna, queremos expandir a los cuatro vientos el siguiente mensaje, invitando a toda la ciudadanía a sumarse al mismo:

- Mostramos nuestra solidaridad con quienes han mantenido la Plaza de Mercado viva estos años. Merecen su sitio en la nueva plaza.
- Hacemos un llamamiento a la sociedad eibarresa para que se sume a esta reivindicación y apuesta, mediante sus hábitos de consumo, por las y los productores locales.
- Solicitamos al Ayuntamiento de Eibar que habilite los procedimientos que resulten necesarios para mantener viva la Plaza de Mercado, sin dejar a nadie fuera.